

Josu Landaren bost poema

Five Poems of Josu Landa

JOSU LANDA GOYOGANA*

Filosofia Saila (UNAM)

Norys Alfonzok hautatuak.
Ibai Sarasuak gaztelaniatik itzuliak.

LABURPENA. *Bajos fondos* (Unibertsitate Autonomo Metropolitanoa, Correo Menor bilduma, Mexiko, 1988) argitaratu zuenetik *Pasible* (Monosílabo, Mexiko, 2025) plazaratu arte, Josu Landak askotariko forma poetikoak probatu ditu, oin metriko klasikoetan bertsoz idatzitako poema luzeak eta tanka japoniarrak, besteak beste, baita ia ezin hizkuntzataraz itzuli ezin diren testu esperimentalak, epigramak eta bestelakoak ere. Horregatik, ezinezkoa da haren poesiaren bilduma egiaz adierazgarrikerik egitea hain orrialde gutxian. Landaren poetikaren irudi ahalik eta zabalena emateko asmoz, denboran elkarrengandik urrun dauden bost poema aukeratu dira.

GAKO-HITZAK: heriotza; iluntasuna; luma; lurra; mundua; zerumuga.

ABSTRACT. *From the publication of Bajos fondos (Universidad Autónoma Metropolitana, Correo Menor Collection, Mexico, 1988) to the launch of Pasible (Monosílabo, Mexico, 2025), Josu Landa has tried a wide variety of poetic forms, from long poems in classical metrical verse to Japanese tankas, as well as experimental texts, epigrams and others that cannot be translated into almost any language. That is why it is impossible to make a truly representative collection of his poetry in so few pages. In order to give the widest possible picture of the poetics of Landa, five poems have been chosen that are distant in time.*

KEYWORDS: darkness; death; earth; feather; horizon; world.

Josu Landaren liburuak, labur-labur haiek ere, ikaragarriak dira. Idazkera garbia eskaintzen du, ezagutza kultural eta filosofiko sakonak, berehalakoarekin loturak eta honi buruzko aplikazioak, pentsamendu originala, eta lotsa-gabeki seduzitzen du irakurlea; hori guztia izan liteke bere poemien ezauga-

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Josu Landa Goyogana. Filosofía Saila, Filosofía eta Letren Fakultatea, UNAM, 04510 Coyoacán (Mexiko) – josulanda@filos.unam.mx

Nola aipatu / How to cite: Landa Goyogana, Josu (2026). "Josu Landaren bost poema", *Gogoa*, 26, 127-133. (<https://doi.org/10.1387/gogoa.28386>).

Jasoa: 2026-02-24. Onartua: 2026-04-13. Aurrea online argitaratua: 2026-04-21.

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

rri. Ezaugarri horiek azalduko dute, halaber, nire hurbilpenak zein mugatuak diren haietako batzuei, haien zatiei. Irakurle naizen aldetik, Josu Landaren obrari (poesia, narratiba, aforismoak eta saiakera) gogoaren benetako dardarak, kultur errebelazioak, gorabeherak, desadostasunak, kointzidentzia etikoak zor dizkiot.

Bere poesiaren hondoan dagoen mundu-ikuskerak, bokazio estetiko zorrotzekoa, Nietzschek “lurraren zentzu” gisa proposatu zuenari erantzuten dio, eta honako ideia hau azaltzen du: ez dugu jainkorik behar, ezta Lurraz haraindiko promesik ere, bizitzeko, edota bizitzaz gozatzeko, modu erabat baikorrean.

Baina poesia, Mallarmék ohartarazi zuen bezala, hitzez egiten denez, eta ez ideiaz, ez sentimenduz, ez sentsazioz, poeta isiltasunaren aurrean entzuten diren hitzen bitartez bizi da oroimenean eta denboraren joanean. Munduaren mugagabetasunak aurrez aurre jartzen du benetan dena irudikatu nahi duten poemen infinitutasuna, eskuetatik beti ihes egiten duena.

Hitzak, munduaren existentziaren testamentu izanik, errealtate filosofiko paraleloa duen zentzuz betetako paisaiari eusten dio, poetak ezin baitu bere sorkuntza bizitzatik bereizi, gizaki modernoaren hutsuneak irauten baldin badu. “Izateak norbere baitan erretzen duen bezala, norberagandik at ere erretzen du”, idatzi du Josu Landak.

Bajos fondos (Unibertsitate Autonomo Metropolitanoa, Correo Menor bilduma, Mexiko, 1988) argitaratu zuenetik *Pasible* (Monosílabo, Mexiko, 2025) plazaratu arte, Josu Landak askotariko forma poetikoak probatu ditu, oin metriko klasikoetan bertsoz idatzitako poema luzeak eta tanka japoniarrak, besteak beste, baita ia ezein hizkuntzatara itzuli ezin diren testu esperimentalak, epigramak eta bestelakoak ere. Horregatik, ezinezkoa da haren poesiaren bilduma egiaz adierazgarririk egitea hain orrialde gutxian. Espero dut denboran elkarrengandik hain urrun dauden poema hauek aukeratu izanak haren poetikaren nahikoa irudi zabala eskainiko duela.

Norys Alfonzo¹

¹ Norys Alfonzo (Tacarigua, Venezuela, 1962) Hezkuntzan doktorea da Venezuelako Oriente Unibertsitatean, eta han eskuratu zuen diziplina bereko Gaztelania eta Literaturako aipameneko lizentzia ere, Caraboboko Unibertsitatean Venezuelar Literaturako masterra egin aurretik. *Poemas de la sed*, *Ausente de tu sangre*, *Hogueras y ceremonias*, *Ánimo*, *animales* eta beste zenbait obraren egilea da, eta 2004an Poesiako Fundarte Sari Nazionala jaso zuen, baita Cruz Salmerón Acosta III. Literatur Bienaleko Poesia Saria ere, 2015ean, eta Solar Literatur Sari Nazionala, 2024an.

Aski da lurra²

Egia esan, ez gatoz eta ez goaz.
Koitoa habitatzen dugu.
Denboralea habitatzen dugu.
Bestea batengan iragazten gara felidoaren daga pluraletik,
ernal-haziaren mareatik hankartearen sakramentu ilunean,
odoletik, zeina isurtzen baita
goiz-albaren eta ilunabarraren atearen artean,
eguzkiaren zirkuluaren eta haren argizko txanponaren artean,
urrunerako prest den hegal baten biderakoa,
hemen inguruko Alexandriak,
osinen pareko hitz
eta are sabel ilunpe-emantzale artean.

Hondar horixe hatzen dugu.
Horrexek betetzen dizkigu, azkenik, begiak
eta haien zeruertz-hondoa.
Eta ixten badira egunen urre beti ilauna joatean
da lehertzeko segidako mendiek
erdiratutako goiztirien gailur beirazkoan
eta jarraitzeko egiazko lorratz berriei,
adibidez haizez ernaldutako zuhaitzaren peko itzalen uztari,
adibidez haitzeko ontzian izotz zuriaren isiltasunari.

Ez du balio paradisuen zenbatekoak,
goiz-alba baten alegiek hitzak lohietan barreiatzen,
denbora-kiloek zeru gainean zeruak aldarrikatzen,
ezerezeko ostiek,
izotzeko ispilutxoek,
garrez eginiko bihotz heriotzaraino zabaldu baten truke.

Zertarako zaldun makurrak holokausto-zaldi gainean.
Zertarako jainko urrun eta sinestezinak.
Benetan: deismo gehiagorik ez.
Ezta mazdeismorik ere.
Ez fideo fideista gehiagorik.

Bagara, bagaude eta badaukagu,
udaberriko itsukeriez esaten denez,
ukitu zaitzaten ukitzearenaz,
plazeraren zuku ilunen bat zirikatu
eta likidoari eutsi arte,
ninfahigabetu eta iheslari baten eskuari heltzean bezala,
heriotzaren ingeradei erreparatu gabe
(zeinak bai baitu adatsik eta gozotasunik ere)

² Jatorrizkoa: "La tierra basta", *Alisios* (Gasteiz: Bassarai, 2004: 89).

aldi oro
ohore handiz
gau goibel, hamarkada tragiko,
Hiroshima, Kosovo eta Ruandak gorabehera
zeinek atzera botatzen baitute, bai
honelako amets bat: hutsa baina goxoa
(eta horrexek du garrantzia: goxoak)
baina erna daitezen beste ate batzuk
eta zabal daitezen arnasa berrien isuriarentzat
Otso Handiaren haginaren atzeko errainuaren eta trinkotasunaren
oszilazio berriak

(Mundu eta bereiz)

Gauza bera esaten baita gorputzaren harriaz,
unibertsoaren hezurdurarekin senidetuaz,
meategi opaleszentea
eta masta bat balitz bezala haragizko belentzat, tumore eta dardarak bai,
baina tinpanoak ere badituztenentzat
bibrazio nahikoaren printzipiorako
eta lore orotako haien goritasunerako
seme eta hildako orotakorako.

Baita hatz eta niniak ere
ile eta bular ororen irideszentzia metatzeko.

Hori da balio duena.
Zertarako astindu begiradak zeruertzetik harago.
Zertarako osasungaitzen prozesuak Bataren bila.

Soilik Hemen intseminatzen gara guztiz.
Soilik Hemen isurtzen gara guztira.
Soilik zoru honetan gara guztia.

Luma bat erori da³

Luma bat erori da bere hegala utzita.

Zerua ez den garaiera batetik dator eta lurra ez den maila batera doa.
Gu bezala bizi izan da: smog eta asfalto artean.

³ Jatorrizkoa: "Cae una pluma", *Extinciones* (Mérida: El Otro, El Mismo, 2011: 78).

Neverí mundua (3)⁴

Itzal bakoitzaren erroan larru bat dago

azal bat
zerumuga beti iheskoraren humusean murgildutako argi baten hondarra akaso
badoan dirdira baten taupada agonikoa
ibai-ispilua forma-egarri
ahantzuran isuritako lorratz baten iluntasun hegakorra
jainko zalantzazko baten arrasto unatua

Harkorra⁵

gailentzen da eguneroko egun bera

gailentzen da sufre- eta berun-ke berbera: txori ezezagunena gandu po-
zoitu baten uhertasunean: ihesean egunsenti ertzean

gailendu da makinaren zarata berbera zero-lurretan: gogoetan gelditu
gabe: erruki-kimurik gabe: konkista-asmoz beti: begiak ezarririk beti:
urruneko bibrazioarekin beti: galdu ez zaion denboraren bila

gailentzen da ametsen arrastoa: jada maiztutako irribarreen kondarrak:
bestela bigun diren gorputzak gartzera emandako begiak: irudi epelak
proiektzio: pilpiratzekorik ez: ulu egitekorik ez

itzultzen da orobat gatza gosearen guruinetan: musuak oihartzun irakinetan
ezpain bakoitzaren uhinean: izotz-izpirituzko eztenek gurutzatuta bezala:
atzeman gabe madarikazioak eta bedeinkapenak kontsolamendu-obolo ba-
ten truke ezta zeruak lurrun gisan iragartzeko hegalean arnasarik ere.

[o, antsiaren heriotza
o, beldurraren heriotza
o, miasmaren heriotza
o, oinazearen heriotza
o, plazeboaren heriotza
o, martirioaren heriotza
o, okerraren heriotza
o, pozoiaaren heriotza
o, hutsaren heriotza
o, denboraren heriotza
o, heriotzaren heriotza]

⁴ Jatorrizkoa: "Mundo Neverí (3)", *Mundo Neverí* (Mexiko: Monosílabo, 2019: 15).

⁵ Jatorrizkoa: "Pasible", *Pasible* (Mexiko: Monosílabo, 2025: 27). *Campos de plumas* webgu-
nean ere plazaratu zen. Hemen eskuragarri: <https://camposdeplumas.com/2025/05/13/pasible>

gero argi-ilun bat halako huts baten taupaka baina barrendik: estertore
bat, dena duen antzinako orro bat eta arantzak zabuka

tximista-argi nahasiren bat bezalaxe: laino-arku bat kaleidoskopio jada
lauso baten hondarrekin amorratuta: noraezean piezaz pieza: beiraz
beira: argazkiz argazki: argiz argi

hortik gora: hondo opakuago baten kimura arte: taupada gehiago: atzera-
kolpe gehiago: mututasun gehiago: dardaraka birjinak nola: lamadatan ura
nola

Eduardo Miláni

Barruan⁶

Han dago
gar irakinetan
hotzikararen matxinadan
ezezagunaren erdian
harridura-sugarretan

Han dirau
olatu-gorputzez
gandorra eta mihia
ehizakin eta ehizatan biltzen

Ez eten inola ere
irrikak asetzea
gonada hanpatuetan
semen metatuen ernatzea

Are gutxiago
jarioen buxadura
emankortasun itsuaren errukirik gabea
amairik gabea
ez eta iluna ere
nola dagokion
eguzki-mugimenduko
oldar izugarriari
eta gainerako izarrei
bultzatzean fusioari

⁶ Jatorrizkoa: “Ínsita”, argitaragabea (2025).

emandako bihotzak
Afroditari men eginez
Erosen inplasio betean

Ezer dioen inork
ezingo du esan ezer

Nahikoa izango da ikustea
zure odolaren arrastoa nire odolean